



---

Euskal Herria komunikazioz ere egiten da. Hortaz, beharrezkoak ditu gure herriak bere burua elikatzea eta birsortzea ahalbidetuko dizkioten komunikazio egitura sendo eta propioak. Horretarako, inoiz egon ez diren aukerak daude gaur egun (politikoak eta soziolinguistikoak); baina inoiz ez bezalako erronkak ere bai (komunikazioen globalizazioa). Horra paradoxa. Gauzak honela, proposamen zehatzak planteatzen dira eremu honetan.

**Giltza-hitzak:** Komunikabideak. Komunikazio espazioa. Hizkuntza. Tebista. Informazio agentzia.

## 1. Aurkezpena

*Gizartea: aniztasuna eta kohesioa* izenburupean 2018ko urriaren 26an eginiko bilkuran ekarpen ezberdinak egin ziren, bi saiotan banatuta. Lehenik Ramon Zallo EHUko irakaslea komunikabideek eta iritzi publikoak herri baten eraketan duten garrantziaz aritu zen. Segidan Mirentxu Purroy kazetariak ere nabarmendu zuen informazioak gaur egungo gizartean duen izaera estrategikoa. Lehen saio honetan, azkenik, Argitxu Camus-Etxekopar ikerlariak nortasun konplexuak ulertzeko euskal diasporak eskaintzen dituen aukerak jarri zituen mahai gainean.

Bigarren saioan, mahai inguru formatuarekin, lau hizlari aritu ziren: Andoni Aranburu, EITBko Estrategia eta Komunikazio Zuzendaria; Ana Oregi, Eusko Legebiltzarreko biltzarkide eta EITBren Erreformatarako Batzordekidea; Txema Mauleon, Nafarroako Foru Gobernuko Eskubide Sozialen Saileko Kabinete Burua; eta jadanik aipatutako Argitxu Camus-Etxekopar.

Gonbiadatutako hizlarioz gain, bestelako ekarpenak ere egin ziren entzuleen aldetik.

Hurrengo lerroetan egindako ekarpen nagusiak laburbilduko dira, jarraian saioek eman zutenaren sintesia egiteko. Izan ere

gai eta ikuspuntu anitzak izan arren, sakoneko gaietan adostasun handia egon zen eta posiblea da ondorio partekatuak ateratzea.

## 2. Hizlarien ekarpen nagusiak

Ramón Zallo euskal nortasunaren definizioaren ibilbide historikoarekin abiatu zen, zera nararmenduz: euskaltasuna ez da nortasun egonkor eta estatiko bat. Historian zehar modu ezberdinetan ulertu eta eraiki da, eta gaur egun ere errealitatearen arabera ulertu eta eratu beharrean dago. Horretarako instituzio sozial eta praktika ezberdinen rola kokatu beharra dago: kultura, hizkuntza, erakundetze politikoa eta komunikazioa, besteak beste. Azken honi dagokionez, komunikabideen arloan Euskal Herriak duen menpekotasun egoera azpimarratu zuen, bai eta komunikazio sistema propio bat eraikitzeko dagoen defizit handia ere. Defizit hori gaintzeko hainbat neurri politiko eta legezko aldarrikatu zituen, eta dei egin zuen bizi dugun aro digitala oso kontuan hartzeko.

Mirentxu Purroyk, bere kazetaritza historiak ematen dion perspektibatik, informazioa ondare publikoa dela azaldu zuen. Ondare hori onura publikoko asmoekin eta zentzuz erabiltzen denean, eraikitzailea eta askatzailea da. Baina asmo ezkutuez edo interes partikularistez erabiltzen denean, gizartearen menperakuntza berrindartzeko erabiltzen da. Aurreko hizlariak bezala, mahai gainean jarri zuen Euskal Herriak pairatzen duen komunikazio menpekotasuna.

Euskal diaspora oso ondo ezagutzen duelarik, atzerrian bizi diren euskal herritarren nortasuna modu inklusiboan nola eraikitzen duten azaldu zuen Argitxu Camus-Etxekoparrek. Diasporako kideak bi errealitate bizi ditu, dagoen tokioa eta jatorrikoa, eta bizipen horretatik eraikitzen den nortasuna ez da estatikoa, denboran eta testuinguruaren arabera aldakorra baizik. Horrela Ameriketako adibidez euskal-amerikar nortasun bat eraiki da, aurreko gizaldietan euskal-frantziar eta euskal-espainiar sentitzen ziren haien nortasunaren garapen konkretu gisa. Hori posiblea izan da elkarren ezagutza eta jatorriko lurraldearekiko hartueman ahalbidetu dituzten espazio eta guneei esker: elkarrekin eta euskal etxeak, sareak, politika publikoak eta komunikabideak, besteak beste.

Mahainguruari gagozkiolarik, Andoni Aranburuk EITBren izaera multidimentsionala azpimarratu zuen: euskarriei

dagokienez (telebistaz gain irratia ere bada, zinema, eta sarea) zein lurraldeei dagokienez (EAEn kokatua egon arren zazpi lurraldeetara hedatzen da, bai eta diasporan ere bai). Ana Oregik komunikazioaren bidez herria egiteko bizikidetzaren garrantzia azpimarratu zuen. Ideia horri zazpi lurraldeen elkarren ezagutza gehitu zion Argitxu Camus-Etxekoparrek. Eta Txema Mauleonek bat egin zuen aurreko hizlari batzuek uzitako ohar batekin: komunikazioak herri bat desegiteko ere balio dezake, helburu horrekin gauzatzen bada.

## 3. Ideia partekatuak

Komunikazioak eta komunikabideek, zentzu zabalean harturik (hots, kultur industriaren sektorea barne) herri baten egituraketan edo desegituraketan garrantzi handia dutelako ondorioa nagusitu zen saioan. Maila kontzeptualeko ideia honetatik abiatu eta Euskal Herriaren egungo errealitatera etorrira, argi-ilunak ikusi ziren.

Alde batetik Euskal Herria menpeko herria da komunikabideen eremuan. Gehien hedatzen diren komunikabideak, eta indartsuenak, ez dira Euskal Herrian kokatuak, eta herri hau gaintzen duten errealitate sozial batzuk islatu eta erreproduzitzen dituzte, bestelako herri eta nazio erreferenteak hedatuz eta euskal gizartetik haragoko iritzi publikoa sortuz. Horrela, gizartearen kontzeptua bera lausotu egiten da euskal gizarteaz ari garenean. Bestalde, euskal lurraldeetan finkatuta dauden komunikabideen artean, indartsuenek ez dute osotasunaren ikuspegirik, eta herri honen ikuspegi zatikatu eta partzialak ematen dituzte.

Herri ikuspegiak harago, gizartea nola ulertzen den ere dago jokoan. Sarriegitan interes partikular batzuei lotuta daude komunikabideak, eta ez dute laguntzen gizarte zuzenago bat eratzeko.

Mundu mailako joerak ere komunikazioan zein pisu duten ere nabarmendu zen, agente berriak sortu direlarik eta aldaketei abiada bizia eman dietelarik.

Alde hauetatik begiratuta, Euskal Herriak etorkizunean iraungo badu, komunikazioa faktore gakoetako bat izango dela ondorioztatu zen. Historiaz, kulturaz, hizkuntzaz, oroimenez, lurraldez, erakundez eta beste faktore batzuek gain, komunikazioz ere egiten da Euskal Herria. Komunikazioak, bestalde, etengabeko aldakuntzan dagoen errealitate bati

egokitzea ahalbidetzen du, aniztasuna kontuan hartuko duen bizikidetzaren sendotuz eta nortasuna etengabe elikatuz eta berreraikiz.

Ondorio horretara iritsita, orain arte egin dena eta egiten dena izan zen mintzagai. Nabarmen geratu zen hainbat gauza egin direla bide honetan, eta arlo batzuetan lorpenak agerikoak dira. Bestela, nekez uler zitekeen oraindik ere Euskal Herriaz hitz egin ahal izatea, eta errealitate sozial ezberdindua izatea. Herri ekimeneko komunikabideez gain arlo publikotik egindako lana ere hartu zen kontuan balorazio hau egitean. Alabaina ikuspuntu ezberdinak geratu ziren agerian arlo publikoak egindakoari dagokionez. Izan ere batzuek komunikabide publikoek egindako lana nabarmendu zuten bitartean, beste batzuek eremu legegilean defizit handia egon dela azpimarratu zuten, egin zitekeena baino gutxiago egin dela argudiatuta. Edozelan ere, orain artekoaren diagnostikoak diagnostiko, aurrera begira indarguneak eta aukerak nagusitu ziren mahai gainean.

Beraz, ondorio garbia izan zen komunikazio sistema propioa eta sendoa eraiki beharra dagoela, etorkizuneko Euskal Herria errealitate izan dadin. Herri gisa bizitzen jarraitu ahal izateko; gizarte zuzenago, berdinzaleago, demokratikoago eta libreago batean bizitzeko; aniztasunetik elikatutako herri nortasun dinamiko eta inklusibo bat eratzeke; lurralde kohesionatua izateko; helburu hauetarako guztietarako, komunikazio sistema sendoa eta propioa garatu beharra dagoela geratu zen nabarmen.

Helburu horrekin urratsak eman beharra azaldu zen. Eman zitezkeen guztiak izan edo ez izan, orain arte urrats garrantzitsuak eman dira, baina bistan da ez direla nahikoak aurrera begira. Ekimen berrien beharra dago, euskal lurralde guztien arteko kohesioa bultzatu beharra dago, komunikabideen bitartez ere bai. Nolabait esanda, komunikazio plan eraginkor bat behar du Euskal Herriak.

Hori, ordea, egungo errealitatea kontuan harturik egin behar da. Eta errealitate horretan faktore ezberdinak hartu behar dira.

Alde batetik errealitate juridiko politikoa dugu. Hiru eremutan banatutako herria da Euskal Herria, eta horrek inplikazio handiak ditu: hiru administrazio, eta hiru subjektu politiko. Euskal Herri osorako edozein komunikazio proiektuk oso kontuan hartu behar du errealitate hirukoitz hori. Izan ere, hitzaldietan argi geratu zen moduan,

komunikazioaren kudeaketa oso lotuta egon ohi da botere politikoari, eta gai sentikorra da. Hiru administrazio horiek, bestalde, bi estatu ezberdinetan banatuta daude, eta horrek zaildu egiten du joko eremua. Alabaina, zailtasunak zailtasun, eremu honetan azken urteetan gertatutako aldaketa handiek (Euskal Herri kontinentaleko erakundetze prozesua batetik, eta Nafarroa Garaian gainerako euskal lurraldeen artean harreman ez gatazkatsu bat aldarrikatzen duten indar politikoaren nagusitzea bestetik) aukera berriak ireki dituzte. Hortaz, ekimenak tentuz eta errespetuz burutu behar dira, baina seguruenik sekula ez du izan Euskal Herriak komunikazio proiektu bateratuak aurrera ateratzeko orain duen bezalako aukera politikorik.

Beste alde batetik egoera soziolinguistikoa daukagu. Komunikazioaz ari bagara, berebiziko lehengaia da hizkuntza. Herri eleanitza gara. Baina hori bezain egia da historikoki euskararen inguruan eraturikoa herria garea. Hemen ere tentuz jokatu beharra dago, maila orokorrago batean azpimarartu den ideia bat (aniztasunetik elikatutako nortasuna) hizkuntzaren eremura ere ekarriz. Horretarako oso garrantzi handikoak dira azken hamarkadetan euskal gizarteak euskarari erakutsitako atxikimendua eta herri ekimenetik zein erakunde publikoetatik eginiko lana, alde batetik; eta bestetik horien ondorioz izandako bilakaera soziolinguistikoa. Bilakaera horri esker, euskaraz egiteko gai diren pertsona kopurua milioi baten inguruan dabil honez gero; eta populazio osoaren erdia baino gehiago da gai euskara ulertzeko. Ezagutzaren joera, bestalde, hazkorra da, etorkizunari ikuspegi arduratsu bezain baikorraz begiratzea ahalbidetzen duelarik. Hortaz, zentzu honetan ere orain arte ezagutu ez diren aukerak zabaltzen dira.

Kontuan hartu beharreko hirugarren faktore handia komunikazioaren eta komunikabideen bilakaerari lotutakoa da. Komunikazio egiturak eta azturak oso arin ari dira aldatzen maila globalean, teknologiaren garapenaren zein dinamika politiko ekonomikoen ondorioz. Oso zaila da, zentzu honetan, epe ertainera komunikabideak zer izango diren aurreikustea. Konturatu orduko aro digitalean baneratu gara, eta honek gauza asko eraldatu ditu. Euskal Herriak komunikazio sistema propioa behar duela aldarrikatzean, nekez imajina dezakegu sistema hori nolakoa izango den aro digitalean. Honek ziurgabetasuna sortzen du.

Oinarri hauetatik abiatuta, eta komunikazio sistema propio baten bidean, bi proposamen zehatz egin ziren Iruñeako

bilkuran: lehena, Euskal Herri osoko telebista publiko bat abian jartzea. Hots, lurralde guztietako hiru erakunde publikoek sostengatua, eta zazpi lurraldetako (edota zortzi lurraldeetako, diaspora barne) Euskal Herria erreferente izango duena. Bigarrena, Euskal Herri osorako informazio agentzia bat.

Proposamenen zentzuaren jatorria duela 100 urteko Eusko Ikaskuntzaren Biltzarrean arakatu behar da. Izan ere orduko hartan Euskal Herriak biziko bazuen gutxieneko erakunde batzuk beharko zituela ondorioztatu zuten Oñatin biladutakoek: euskararentzako akademia bat; goi mailako ezagutzaren erakunde bat; eta erakunde politiko amankomunak. Proposamen haietatik etorri ziren, handik gutxira, Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza erakundea bera, epe laburrean. Eta proposamen haietatik etorri zen geroago Autonomi Estatutua. Borroka politikoez lehenik eta gerrak geroago zapuztu egin zuten azken hau (baita Eusko Ikaskuntza ere); baina diktadura amaituta, Hego Euskal Herriko oraingo erakundetzea eratzeko erreferente izan zen, foruekin batera. Horrela, orain zera galde daiteke: zer izango zen gaur egun euskara, eta zer izango zen gaur egun Euskal Herria, duela ehun urte ekimen haiek abian jarri izan ez balira? Modu berean, aurrera begira, zera galde daiteke: zer izango da Euskal Herria etorkizunean, komunikazioaren arloan erakunde partekatuak abian jartzen ez badira?

Telebistak edo agentziak zein tankera konkretu izango luketen aurreikustea zaila da, esan bezala arlo honetan gauzak oso arin aldatzen ari direlako. Baina oinarritzko ideia batzuk utzi ziren Biltzarrean.

Alde batetik desiragarritzat jo zen lurralde guztietako eta guztietarako telebistaren eta agentziaren proposamenak: helburu gisa definitu ziren. Bestetik zerbitzu publikoaren beharra azpimarratu zen. Hirugarrenik adostasun politiko handia eskatzen duela argi geratu zen, euskal lurraldeetako hiru administrazioen artean. Horrekin batera, eta hori lortze aldera, komunikabideon erabilera politiko partidista ekidin beharra defendatu zen, adostasunak behar duen konfidantza sendotzeko. Eta honi lotuta proiektua helburu kulturaletik garatu beharra azaldu zen. Izan ere komunikabide amankomun baten xedea nazio politikoaren eraikuntza balitz, errefusa jasoko luke euskal gizartearen hainbat sektoretatik bezainbeste sektore politiko anitzetatik ere. Xedeak euskara eta euskal kultura badira ordea, proiektu amankomunak zilegitasun handiagoa lortuko du.

Azken ondorio partekatuak Eusko Ikaskuntzaren Biltzarrean logora garamatza: hizlarien artean zegoen arkitektoak, herria eraiki baino gehiago herria ehundu aipatzen zuen. Metafora oso egokia da biltzar hark eman zuena kalifikatzeko: pertsona eta sektore anitzen arteko harremanak ehunduz eratuko da etorkizuneko Euskal Herria, komunikazioaren arloan bezala gainerakoetan ere. Ehuntze lan horretan, Biltzarra abiapuntu garrantzitsua izan da.